

ESANAK

JUAN MARIA ATUTXA

(Eusko Legebiltzarreko presidentea)

«Hiltzen dutenei txanpon berberarekin ez erantzutea borroerokiko alde moralaren erakusle da»

MARIMAR BLANCO

(Miguel Angel Blancoren arreba)

«Omenaldi hauek balio dute terrorismoaren biktimok burua altxatuta joan gaitezen»

IÑIGO URKULLU

(EAJko legebiltzarkidea)

«Ekitaldira ez dira indarkeriaren biktima guztiak gonbidatuak izan»

RAFA LARREINA

(Eako legebiltzarkidea)

«Alderdien batasuna behar da biktimen arazoa konpondu ahal izateko»

CRISTINA SAGARZAZU

(Montxo Doralen alarguna)

«Omenaldi hoberena helduko da biktima gehiago ez dagoela jakiten dugunean»

Ildo horretan iritzi zioten omenaldi hoberena helduko dela «biktima gehiago ez dagoela esaten digutenean». Hala-ber, elkarrizketa eskatu zioten alderdu politikoei.

Teresa Diaz COVITEko ele-dunak, berriz, ekitaldia alderdientzako zela esan zuen, eta bereziki alderdi abertzaleak eta EB-IU kritikatu zituen ekitaldian ez babesik eman arren, ondoren parte hartu zutelako.

AAB. Eusko Legebiltzarrak antolatutako ekitaldiaren «hipokrisia politikoa» salatu dute



ADRIAN DIAZ DE TUESTA

AABek eta errepresioaren ondorioak pairatu dituzten biktimek atzo eskainitako prentsaurrekoa.

«Gatazka konpontzen ez den heinean, denak biktima izaten jarraituko dugu»

Zapalkuntza pairatu dutenek «irtenbideak» eskatu dituzte

Edurne Begiristain | GASTEIZ

Arabako Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta zenbait euskal errepresaliatu eta hildakoen senideek EAEko Legebiltzarrak ETaren biktimei egin omenaldia salatu zuten atzo eta «hipokresia politikotzat» jo zuten ekitaldia.

Arabako ABBetako koordinatzaile Maite Diaz de Heredia-ekin batera, zazpi euskal herriarren senideak zeuden: Iñaki eta Josu Ormaetxearen arreba —bata Morlansen Guardia Zibilak hila eta bestea preso—, Jose Ramon Lopez de Abetxuko presoaren semea, Satur Lopez Domaika presoaren ama, Enrique Gomez Kortaren ama, Bittor Goñi presoaren ama eta

Lutxi Urigoitiaren neba —Guardia Zibilak hila. Halaber, 1976ko martxoaren 3an Gasteizen jazotako gertakariak pairatu zituen Santi Diaz de Espada zegoen.

Juli Ormaetxea Anteparak biktimen izenean hitz egin zuen, eta sei puntuko adierazpena irakurri zuen. «Gu ez gara gonbidatuak izan PPK, PSEk eta UAK antolatu eta EAJ, EA eta EB-IUren babesa izan duen ekitaldira, eta hemen gaude uste dugulako garrantzitsua dela guk dioguna ere kontuan izatea», esanez hasi zuten adierazpena.

Errepresioaren biktimek gogoratu zuten euren sufritzea tokatu zaiela, eta beraz, pertsona guztien sufrimendua errespetatzen dutela.

«Mina zer den eza-gutzen dugulako adierazten dugu alderdi horien ekimenak min izugarria egiten digula, ez baitu ezertarako balio omenaldiak egitea sufrimendu betikotzekoaren alde agertzen badi-ra». Azaldu zuenez, «biktima batzuk omentzen dituzte bada-kitenean euren politikak gataz-karen gordintasuna zuzenean jasango duten pertsona gehiago eragingo dituela». Atzoko ekimena babestu zuten Gasteizko Parlamentuko ordezkariak «euren ardura ez ezkutatze» deia egin zieten.

Hala, dei zuzena egin zieten politikoa eta gizarteari: «Guk ez dugu mendekua eskatzen, dei egiten diegu alderdiei eta baita gizarteari sufrimendu guztien

JULI ORMAETXEA

(Iñaki eta Josu Ormaetxearen arreba)

«Mina zer den badakigulako adierazten dugu ekimen horrek min izugarria egiten digula»

iturburuarekin buka dezaten, gatazka konpontzeko pausuak emanez. Izan ere, gu ere gaur Eusko Legebiltzarrak hartuko dituen pertsonak bezala biktimak gara, eta irtenbideak aurkitzen ez diren bitartean guztiak biktimak izaten jarraituko dugu».

«Hipokresia politikoa eta instrumentalizazioa»

ABBetako ordezkari Maite Diaz de Heredia EAJ erakunde armatuaren biktimei eskaini omenaldia kritikatu zuen «ekitaldi hauekin arazoa sinplifikatu nahi dutelako». «Ekitaldi hauen atzean ez da ezagutzen gatazka sortutako sufrimendu orokorra, euren estatu ereduaren defentsa baino ez delako egiten», esan zuen.

Halaber, ekitaldi horrekin «sofrimendu eta biktimen instrumentalizazioa» egiten dela salatu zuen, eta gatazka politikoa konpontzeko «ezgaitasuna» adierazten dela.

Diaz de Herediaren hitzetan, Eusko Legebiltzarreko omenaldiaren antolatzaileak Euskal Herriak «pairatzen duen sufrimenduaren erantzule zuzenak dira», eta hori dela eta «hipokresia politikotzat» jo zuen; «gaitzespen hitzak eta diplomak dauden arren, ez direlako konponbiderik ematen».

ABBetako koordinatzailearen aburuz, instrumentalizazio horrekin «PP-PSOE itunak ongi islatzen duen estatu politika zilegi egin nahi da». Haren iritziz, «apostu errepresiboa zilegi egiteak esan nahi du estatu politika ez den bestelako apostu politiko eta sozialak zapuztu eta zapaltzea».

Gauzak horrela, EAJ, EA eta EB-IU kritikatu zituen omenaldian parte hartu izanagatik.

Elhuyar -ek

HIZKUNTZA AHOLKULARITZAN jarduteko

TEKNIKARIEN LAN-POLTSA

osatu behar du eta horretarako **TREBATZE-IKASTAROA** antolatuko du urtarilaren amaieran

Interesatuak bidali curriculuma beheko helbidera.
Curriculumak bidaltzeko epea: urtarilaren 13a.

Oharra: curriculumak aztertu ondoren ikastarorako hautatzen diren pertsonenik soilik jarriko gara harremanetan.

Elhuyar (lan-poltsa). Asteasuain, 14. 20170 Usurbil. Tel.: 943 36 30 40. elhuyar@elhuyar.com

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK...

MAKETATZAILA BEHAR DU

Maketatzailea eta internet arduraduna, 6 ordu-tara.

BETEBEHARREKO BALDINTZAK:

- Euskalduna izatea.
- Gidatzeko baimena izatea.
- QuarkXPress, Freehand, Photoshop eta Pagemill programak menderatzea.
- Esperientzia.

AURKEZTEKO EPEA:

- Urtarilaren 2a. Curriculum-ak helbide honetara bidali.
- Galtzaundi Euskara Taldea. Nafarroa etorbidea, 6 / 20.400 Tolosa

OHARRA:

- Frogak urtarilean egingo dira.
- Lan-kontratuak printzipioz urtebetekoak.

IDAZKARIA BEHAR DU

Idazkaria eta kultur dinamizatzailea, 6 ordu-tara.

BETEBEHARREKO BALDINTZAK:

- Euskalduna izatea.
- Gidatzeko baimena izatea.
- Tolosaldekoa izatea ezinbestekoa.

AURKEZTEKO EPEA:

- Urtarilaren 2a. Curriculum-ak helbide honetara bidali.
- Galtzaundi Euskara Taldea. Nafarroa etorbidea, 6 / 20.400 Tolosa

OHARRA:

- Frogak urtarilean egingo dira.
- Lan-kontratuak printzipioz urtebetekoak.